



GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

ACTA DEL PLENO DEL CONSEJO VASCO DE SERVICIOS SOCIALES

(Reunión del día 23 de julio de 2009)
(2009ko uztailaren 23ko bilera)

Dei-egilea:

Presidentea: Gemma Zabaleta andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua.

Bertaratuak:

Fernando Fantova Azcoaga jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako sailburuordea.

Alfonso Gurpegi Ruiz jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako zuzendaria.

Isabel Paredes andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Zuzendaritzako teknikaria.

Miguel Gonzalez Martin jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Inmigrazioko zuzendaria.

Celina Pereda andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Droga Gaietako zuzendaria.

Miren Amilibia Urcelay andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Herritarren Partaidetzarako sailburuordea.

Patricia Arratibel Ugarte andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun Finantzazio eta Kontratzioko zuzendaria.

Mariola Serrano andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako zuzendaria.

M^a Luisa Garcia Gurrutxaga andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria.

Isabel Muela Lopez andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Turismoko zuzendaria.

Arantza Elizondo andrea.- Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea.

Covadonga Solaguren andrea.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuen diputatua.

Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Autonomia Pertsonala sustatzeko zuzendari nagusia.

Jose Ignacio Insausti jauna.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Saileko Haur eta Gazteen zuzendari nagusia.

Ricardo Barkala jauna.- EUDEL. Bilboko Udala.

Lourdes Idoiaga andrea.- EUDEL. Oñatiko Udala.

Dorleta Goiburu andrea.- EUDEL.



Begoña Gil Llanos andrea.- EUDEL.

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna.- Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkartetako Lurralde Federazioa.

Javier Domínguez Entenza jauna.- ONCE Euskadi.

M^a Jose Cano andrea.- Gaixo Psikikoen eta haien Senideen Euskadiko Federazioa (FEDEFES).

Juan Ibarretxe Kareaga jauna.- Gizarteratze Batzorde Iraunkorra.

Maite Díaz de Lezama andrea.- Etorकिन Laguntzarako GKEen Euskadiko Koordinakundea, "Harresiak apurtuz".

Natalia Díez Caballero andrea.- Euskadiko familia ugarien elkartetako Federazioa.

Karmele Acedo andrea.- Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.

Jesus Otaño Maiza jauna.- Euskadiko gizarte-hezitzaileen elkargoa.

Felisa Piedra andrea.- CCOO Euskadi.

Emilia Málaga andrea.- UGT Euskadi.

Julene Gabiola andrea.- ELA Sindikatua.

Leonor Díez jauna.- Arabako hiesaren kontrako Batzordea.

Iker García jauna.- EAEko Gizarte Laneko Diplomatuaren Elkargo Ofizialak.

Oscar Vizarraga jauna.- KALE DOR KAYIKO. Euskadiko Ijito Kontseilua.

Alberto Ponti jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Haurtzaroaren alorreko Batzordearen ordezkaria.

Bertaratu ez direnak:

Ignacio de la Puerta jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendaria.

Ignacio Rodríguez Puertas jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

Gloria Mugica Conde andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Inés Ibáñez Maeztu andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazioaren Saileko Giza Eskubideen zuzendaria.

Piedad Arbaiza Villalonga andrea.-

Koldo Hualde Mayo jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintzako zuzendaria.

Ane Abarrategui Zaitegi andrea.- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consuelo Ordejón andrea.- Gizarterako elkarte.

Juan Carlos Sola jauna.- Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea.

Pedro Fernández García jauna.- Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkartetako Euskal Federazioa (FEVAS).

Ana Ureta Basañez andrea.- Aldarte elkarte. Gay, lesbiana eta transexualentzako arreta.

CONFEBASK

LAB Sindikatua.



Bilera uztailaren 23an egin da, goizeko 09:00etan hasita. Hona hemen gai-zerrenda:

1. Bilkura arruntaren (08/10/03) eta ez-ohiko bilkuraren (09/01/16) aktak onartzea.
2. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ildo nagusiak aurkeztea eta eztabaidatzea.
3. Gizarte Zerbitzuen Legearen eta gizarte-zerbitzuak biltzen edo haiei eragiten dien gainerako legeen garapenerako eta aplikaziorako hurrengo hilabeteetan ezarri beharreko eginkizunak aurkeztea eta eztabaidatzea.
4. Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legearen aldaketa-legearen aurreproiektua.
5. Galde-eskeak

1. *puntua*.- 2008ko urriaren 3an eta 2009ko urtarrilaren 16an egindako osoko bilkuren aktak aho batez onartu dira.

2. *puntua*.- **Gemma Zabaleta** sailburuak bertaratuei agurra eta ongietorria egin ondoren, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sail berria aurkezteko Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldia azaldu du labor-labor.

Enplegua babesteko eta hobetzeko eta gizarte-babesa ziurtatzeko konpromisoa berretsi du honako hiru lan-ildo hauen bidez: 2008an onartutako legeen legegintza-garapena, enpleguaren babesa eta hobekuntza eta gizarte-politikei aplikaturiko I+G+Baren garapena.

Lehen ildoari dagokionez eta zehazki gizarte-gaiei dagokienez, helburu modura finkatu du honako hauen garapena: Gizarte Zerbitzuen Legea, Familiari babesteko eta laguntzeko Legea, Diru-sarrerak Bermatzeko Legea eta Etxebizitzarako Osagarriaren Dekretua. Era berean, konpromisoa hartu du 2010eko urtarrilaren 1erako Diru-sarreraren Bermea eta Etxebizitza Osagarria arautzen dituzten dekretuak prest egoteko.

Bigarren lan-ildoari dagokionez, diru-sarreraren bermeari lotutako enplegu-politiken garapena proposatu du, betiere eskatu duten eta behar duten pertsonentzat. Eremu horretan Euskal Enplegu Sistemaren konfigurazioa aipatu du politika aktiboen eskumenen eskualdaketarekin batera, enplegu- eta gizareratze-politikak lotuz langabezian eta diru-sarreraren bermean dauden pertsoneri lagunduko dien tresna modura

Azken lan-ildoari dagokionez, berrikuntzaren kultura gizarte-politikei zabaltzea proposatu du, eta horretarako gizarte-zerbitzuen sisteman eta osasunaren, hezkuntzaren eta zenbait gunetan gizarte-arloarekin bat egiten duten sistemetan jakintza eta berrikuntza garatzea ahalbidetuko duten proiektu esperimentalak martxan jarriko dira.

Hori guztia gizarte-elkarrizketako eta enpleguko politika aktiboak hartzeko esparruan eta zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzaren aldetik gizarte-erakundeekin elkarrizketa zibila irekitzeko asmoa dagoela azaldu du.

Jarduera horiek guztiak gaurko krisi-egoeran kokatu ditu eta horrek gastuetan lehentasun-ahalegina eskatuko du, baita gastu hori arrazoitzeko erakundeen lankidetzaren ere.

Azkenik, Sailak garatzeke dituen beste jarduerak batzuk aipatu ditu, Eusko Legebiltzarrean egindako agerpenean jasotakoak. Horiei buruzko dokumentazioa bertaratutakoei banatu zaie.

ELAko **Julene Gabiolak** Gizarte Zerbitzuen Sistemaren garapenari dagozkion Saileko elementu estrategikoei buruz eman den dokumentua aztertzeko ezarritako bileraren atzerapena eskatu du.

Gemma Zabaletak erantzun du Saileko asmoak jasotzen dituen dokumentua dela eta partaidetza-foroetan iritzia emateko aukera izango duela.



EUDEleko **Ricardo Barkalak** galdetu du diru-sarreraren bermearen eta enpleguaren artean loturarik ezarriko ote den eta oinarrizko errentak euskal enplegu-zerbitzuen bitartez bideratuko diren.

Gemma Zabaletak erantzun du oraindik Euskal Enplegu Zerbitzua ez dela diseinatu baina bere eginkizuna enpleguko politika aktibo guztietaz arduratzea izango dela, hau da, langabeziagatik prestazioa nahiz oinarrizko errenta kudeatzea.

Diru-sarreraren bermearen prestazio ekonomikoen kudeaketa gizarte-zerbitzuen arlotik ateratzeko proposamena gizarte- eta erakunde-eragileekin eztabaidatu, aztertu eta adostuko da, eta, beraz, 2010eko urtarrilaren 1erako dispositibo hori oraindik ez da operatiboa izango. Dena den, epe laburrean, epeak eta kudeaketa hobetzearen alde lan egin behar da.

Emakundeko **Arantza Elizondok** galdetu du Sailaren baitan berdintasun-unitaterik badagoen. Baietz erantzun zaio, Zerbitzu Zuzendaritzan kokatua, hain zuzen ere.

Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteko **Txema Odriozolak** elkarrizketa sozialaren esparruan I+G+B nola gauzatuko den galdetu du.

Gema Zabaletak erantzun du bi alderdik ezartzen dituztela lehentasunak. Bere ustez, berrikuntzatzat har daiteke politika bateratuak garatzea hezkuntza-sistemaren eta gizarte-zerbitzuen sistemaren artean edo osasun-sistemaren eta gizarte-zerbitzuen sistemaren artean. Adibide modura honako hauek azaldu ditu: lana eta familia bateragarri egiteko proiektuen garapena edo besteren laguntza behar dutenen etxez etxe laguntzeko proiektuen garapena. Ondorioz, Saileko arlo bakoitzak bildu beharko ditu I+G+Bko politikak.

3. *puntua*.- **Fernando Fantovak** Gizarte Zerbitzuen Legearen aplikaziorako eta garapenerako proposamenaren dokumentua aurkeztu du. Lehenik, Saileko egiturari buruzko informazioa eman du, bereziki Gizarte Gaietako Sailburuordetzari buruz eta hurrengo hilabeteetarako honako hiru eremu hauetaz osatutako lan-agenda proposatu du:

Arau-garapenaren eremuan, honako hauei buruzko informazioa eman du: gizarte-zerbitzuen Legea garatzen duten arauen lantze-egoera, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko Legearen eraginpeko arauen berrikuspena, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legearen aldaketa, haurrekin eta nerabeekin erlasionaturiko bestelako garapenak, Familia Bitartekotzari buruzko Legea garatzen duten dekretuak eta Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legearen garapena.

Plan estrategikoaren eta informazio-sistemaren eremuari dagokionez, Plan estrategikoaren lantze-prozesua nola gauzatuko den azaldu du (2010eko ekainerako Plan horren lantze-dokumentu bat egotea aurreikusita dago), baita informazio-sistemaren aginte-taula bat diseinatzeko modua ere.

Sustapen-ekintzaren berrantolaketa eremuan, diru-laguntzen jardueran kontuan hartuko diren gakoak azaldu ditu eta, besteak beste, honako hauek izango dira: gizarte-ekimenaren eta erakunde-ekimenaren arteko bereizketa, jardueren finantzaketa Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzatik bideratzea edo autonomia-eremuko erakundeak Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzatik indartzea.

Azkenik, lan-metodologia azaldu du eta azpimarratu ditu metodologia hori zuzenduko duten honako printzipio hauek: erakunde bakoitzaren erantzukizun-eremuaren errespetua, eraginkortasuna, partaidetza eta adostasunak bilatzea; zentzu horretan, Gizarte Zerbitzuen mahai berezia eratuz erakunde arteko elkarrizketari jadanik ekin zaio. Era berean, gizarte-ekimenaren sareekin egitekoa den bileraren berri eman du, gizarte-elkarrizketaren osagarria izango den elkarrizketa zibilari ekiteko helburua duena.



Euskadiko gizarte-hezitzaileen elkargoko **Jesús Otañok** adierazi du elkargoari ez zaiola galdetu haur eta nerabeen babesgabezia-egoerak balioesteko tresna egiterakoan eta proposatu du gizarte-arloan haur eta nerabeekin esku-hartzen duten elkargo profesionalen ordezkari bat izendatzea, kolektibo horren ekarpenak jakinarazi ditzan.

Arabako Foru Aldundiko **Covadonga Solaguren**ek Gizarte Zerbitzuen Legearen garapenarekin ados dagoela azaldu du; Lege horrek Gizarte Zerbitzuen Sistema ezartzea eta zabaltzea ekarri behar du, baita eraginpean hartutako administrazio bakoitzaren eskumen-eremuak argitzea ere, babes-sistema desberdinei dagokienez (osasuna, hezkuntza eta abar) nahiz administrazio-mailei dagokienez (udalekoa, Foru Aldundikoa eta Autonomia Erkidegokoa). Gizarte Zerbitzuen eginkizuna definitzea beharrezkoa ikusten du eta uste du krisia gastua berrantolatzeke eta administrazio bakoitzari dagozkion zerbitzuak eta eskumenak berriz definitzeko aukera izan daitekeela. Beraz, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren planteamenduaren alde dago, Eusko Jaurlaritzak zentzu horretan proposatzen dituen jardunetan laguntza osoa ziurtatzen duelarik.

Gipuzkoako gizarte-langileen elkargoko **Iker Garciak** oinarrizko gizarte-zerbitzuak gainezka eginda daudela adierazi du eta eginkizun berriei ekiterakoan kezka azaldu du berrikuntzak sartzeak esku-hartze zuzenari denbora kentzen diolako. Horregatik gaur egun dauden informazio-sistemak erabiltzea proposatu du. Gainera, gizarte-lanaren eremuaren alde dago, eremu horrek nortasun propioa eta espezifikoa duela uste duelako.

Gemma Zabaletak, alde batetik, Arabako diputatuak azaldutako babesa eskertu du eta bestetik, Euskadiko gizarte laneko Elkargo Ofizialaeko Iker Garciari erantzun dio ez dela inolaz ere gizarte-lanari garrantzirik kendu nahi, aitzitik, burokratizazio-maila jaitsi nahi dela, prestakuntza etengabea jasota gizarte-zerbitzuetako langileek beren lan espezifikoa egin dezaten.

ELAko **Julene Gabiolak** Gizarte Gaietako sailburuordeak aurkeztutako Gizarte Zerbitzuetako Legearen garapena eta aplikazioaren proposamenari buruzko dokumentuari dagokionez ondorengo zehaztasunak aipatu ditu. Lehenik, adierazi du ez dela zuzena Saileko estrategia-dokumentuan egiten den aipamena egoitzetako grebei eta gutxieneko zerbitzuei buruz. Bigarrenik, Zerbitzuen Zorroa lantzeko alde biko harremanak ezartzeko proposamena egin du eta kritikoa azaldu da zerbitzuen prestazioan ekimen pribatuak parte hartzearen aurrean. Hirugarrenik, baterako ordainketa-sistemaren aurka dago, Administrazioak zerbitzua doan eman behar duela uste baitu. Azkenik, Plan estrategikoa lantzeko moduaren aurka azaldu da, Sailak hartu beharreko erabakiak direlako, eta, beraz, ez da zuzena kanpo-agentzia bat kontratatzea.

Fernando Fantovak ELAko ordezkariari erantzun dio honako hau esanez: grebari buruzko aipamena adibide modura hartu zela erabiltzaileen eta langileen eskubideak bateragarri egitearen alde dagoen kezka azpimarratzeko. Zerbitzuen Zorroa lantzeko alde biko harremanak ezartzearekin ados dagoela adierazi du eta hirugarren puntuari dagokionez esan du baterako ordainketa eta ekimen pribatua gizarte-zerbitzuen Legean bilduta eta araututa dauden kasuak direla. Planaren azpikontratazioari eta informazio-sistemari buruz adierazi du horiek gauzatzea ez dela erantzukizun politikoaren utzikeria, erabakia Sailak hartuko duelako.

Gemma Zabaletak gaineratu du zerbitzuak ematearen erantzukizuna publikoa dela. Azken batean, erantzukizun hori bete egiten da nahiz eta hirugarren pertsonen bidez izan eta ez, aldiz, modu monolitikoa, soil-soilik Administrazioaren bidez. Garrantzitsuena zerbitzuak ondo ematea da. Zerbitzuak doan emateari dagokionez, esan du baterako ordainketa gero eta zabalduagoa dagoela Europan eta ez duela ezagutzen doaneko eredurik duen Europako herrialderik, unibertsaltasuna ekonomia-iraunkortasunarekin bateragarri egin behar baita.

HIRUKIDEko edo Euskadiko Familia Ugarien Elkarten Federazioko **Natalia Díez Caballerok** Familiaren Legearen garapenari buruz galdetu du eta jakin nahi du sailburuordeak aurkeztutako dokumentuan zergatik ez den aipatzen Familiaren Euskal Kontseiluaren eta Behatokiaren sorrera.



Fernando Fantovak erantzun du sorrera hori dokumentuan ez dela aipatzen familia politikak zeharka eragiten dielako gizarte-zerbitzuei eta beste hainbat babes-zerbitzuri eta dokumentua zehatzago gizarte-zerbitzuen eremuari dagokiolarako. Alabaina, Sailak bere eremu propioan sortuko du, Familia Politikaren Zuzendaritzaren eremuan.

Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioko **Txema Odriozolak** ildo berdinari jarraituz galdetu du zergatik ez den Zaharren Kontseilu Nagusia azaltzen.

Fernando Fantovak erantzun du Zaharren Kontseilu Nagusia Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren baitan sortuko dela Dekretuan ezartzen denaren arabera.

Txema Odriozolak berriz hitz egin du zaharrak beren etxeetan zaintzeko aldarrikatuz. Era berean Arreta Soziosanitarioko Kontseiluan zaharren parte hartzea sustatzeko eskatu du, baita sektore kontseiluak eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkorra martxan jartzeko ere.

Fernando Fantovak, zaharrak beren etxeetan zaintzeari dagokionez bere adostasun osoa adierazi du eta Arreta Soziosanitarioko Kontseiluari dagokionez jakinarazi du Osasun Sailarekin negoziazioak daudela, legeak eskatzen duen moduan, Kontseilu hori paritarioa izan dadin. Sanitarioa eta soziala orekatu nahi da, sanitarioaren garrantzia gutxituz eta komunitarioaren eremua zabalduz. Etxeko zaintzan eta telezaintzan proiektu bateratuak garatzeak asko lagun dezake eremu horretan aurrera egiten. Zahartze aktiboaren sustapena Sail honek eraman nahi duen lan-ildoarekin bat datorrela adierazi du.

Arabako Foru Aldundiko **Covadonga Solaguren**ek adierazi du ados dagoela osasun-sistemarekin izandako harremanak izan duen asimetriarekin eta lan hori komunitarioagoa egitearekin baina bigarren asimetria bat dagoela adierazi du eta lurraldekoa da, garapen soziosanitarioak desberdintasunak aurkeztu baititu hiru lurraldeetan; egoera hori balioesteko eskatu du.

Fernando Fantovak erantzun du Kontseilu berriak orain arte egindakoa eta Arabako egoera kontuan hartu beharko duela.

FEDEFESko **M^a José Canok** galdetu du aurkeztutako dokumentuari ekarpenak egiteko eperik badagoen eta Kontseilu Soziosanitarioan kontuan hartzeko eskatu du.

Fernando Fantovak erantzun du ez dagoela alde zuzenetik ezarritako eperik.

4. puntua. - **Gemma Zabaletak** Haur eta Nerabeen Defentsa Bulegoa kentzeko proposamena justifikatzen duten arrazoiak azaldu ditu eta gaineratu du aurreko legegintzaldian eta legebiltzarrean azaldu ziren berdinak direla. Beti gai eztabaidagarria izan dela adierazi du, beharrezko adostasunik gabekoa. Ondoren organoaren historia azaldu du: lehen defendatzailearen dimisioa, Foru Aldundiaren eta Arartekoaren eskumenak mugatzeko gatazkak eta abar. Arartekoak eremu horretan egiten duen lanarekin konparaketa egin ondoren adingabeen defentsarako jarduera-eremu gutxi geratzen dela ondorioztatu da. Beraz, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Legearen aldaketa koherentzia nagusitzeko gauzatu beharra dago.

Bizkaiko Foru Aldundiko **Iñigo Pombo**, sailburuaren ikuspuntuarekin bat dator eta gaineratu du Arartekoak jadanik adingabeen eskubideak defendatzeko eginkizuna betetzen duela. Hori dela-eta, proposatu du defentsa-bulegoa kentzen denean, izapidetzen ari diren dokumentuak Arartekoaren bulegora igortzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko **Jose Zugastik** ere Defentsa Bulegoa kentzearekin ados dagoela adierazi du. Era berean Foru Aldundiak adingabeak zaintzeko eta babesteko egiten duen lan guztia azpimarratu nahi duela azaldu du, batez ere inoren kargura ez dauden adingabeei dagokienez eta egoera horren berrikuspena eskatu du, izan ere ez dagozkien eginkizunak betetzen ari direlako.



Gemma Zabaletak Bizkaitik eta Gipuzkoatik planteaturikoarekin ados dagoela adierazi du eta onartu du azken lurrean horretan adingabeekin egin diren jardueretan azaroak sortu direla, eta, beraz, gai horri heltzeko konpromisoa hartu du. Era berean, foru aldundietatik eta udaletxeetatik egiten ari den esfortzuak babesa merezi duela onartu du, baina une honetan ez da Legearen aldaketarik planteatu zentzu horretan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko **Jose** Insausti azpimarratu du adingabeen arazoa ezagutaraztea nahi duela eta beharrezkoa dela legeak babes-arloa eta arlo judiziala bereiztea.

Aurkeztutako txostena bozkatu da eta aho batez onartu da.

5. *puntua*. - Galde-eskerik ez dagoenez, 2009ko uztailaren 23ko 11:00etan bukatutzat eman da bilkura.

IDAZKARIA

OE
PRESIDENTEA